

Irakasgaiaren izena	Kodea	Ikasturtea
Gizarte Zientziak eta bere didaktika II	141221	2024-25
Titulazioa	Maila	Seihilekoa
Lehen Hezkuntza	3.	2.
Irakasgai mota	ECTS Kredituak	Hizkuntza
Derrigorrezkoa	6	Euskara
Irakaslea(k)		
Olalla Juaristi Larrinaga		

Justifikazioa

Gizarte Zientziak izeneko materiaren asmoa da Gizarte Zientziek Lehen Hezkuntzako curriculumean duten hezkuntza-balioa ulertzen erraztea, hainbat zientzia ezberdin, ezagutza komuneko helburu batean integratzen lagunduz. Horretarako, zientziak eta metodo zientifikoak errealitatearen azterketan duten garrantzia bereizten du.

Gizarte Zientziak eta bere didaktika II irakasgaia, materia honetan txertatuta, aurreko seihilabetean ikasitako *Gizarte Zientziak eta bere didaktika I* irakasgaiaren jarraipena eta bukaera da. Beraren helburua da Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen ezagueraren arloko helburuak eta edukiak aztertzea, Lehen Hezkuntzaren etapan.

Gizarte zientzien irakaskuntzaren alorreko teknikak eta baliabide didaktikoak ezagutzeak eta aplikatzeak unitate didaktikoak diseinatzea ahalbidetuko dio ikasleari, alor horren barnean. Irakasgai honek erakutsiko dio zer bide aukera daitezkeen hezkuntza-asmo handiak curriculum-proiektuetan eta unitate didaktikoetan islatzerakoan.

Bukatzeko, didaktika sozial kritikoaren zutabeak, ezaugarriak eta inplikazioak ezagutu ahal izango ditu, eta beraren postulatuak eta proposamenak baloratu ahal izango ditu ezagutzaren erabilera demokratikoak planteatzen dituen dilemen argitan.

Aurrebaldintzak

Ez dago aurrebaldintzarik.

Gaitasunak

Gaitasun orokorra

- AHOZKO KOMUNIKAZIOA. 2. MAILA. Taldean hitza erraz hartzea; segurtasuna eta uste sendoak adieraztea eta diskurtsoa eskakizun formaletara egokitzea.

Berriazko gaitasunak

- Lehen Hezkuntzako Gizarte Zientzien arloko curriculuma programatzea, edukiak sekuentziatuz eta aukeratuz, arloari eta beraren irakatsi-ikasi prozedurei buruzko ezagutza oinarritzat hartuta.
- Estrategia metodologikoak modu egokian diseinatzea eta garatzea, baliabide didaktiko eraginkorrak eta askotarikoak erabiliz, Lehen Hezkuntzako curriculumean biltzen diren gaitasunak lortzeari begira.
- Ikasleen adinerako baliagarriak eta egokiak diren ebaluazio irizpideak aukeratzea, ikaskuntzako emaitzak formulatuz Natura, Gizarte eta Kultura ingurunearen ezagutza arloko ziklo eta maila bakoitzerako.



Garapen Jasangarrirako Helburuen eta Laudato si' Helburuen presentzia ikasgaietan



GJH 4. Kalitatezko

hezkuntza. GJH 5. Genero-berdintasuna. GJH 6. Edateko ura eta saneamendua. GJH 8. Lan duina eta hazkunde ekonomikoa. GJH 10. Desberdintasunak murriztea. GJH 11. Hiri eta komunitate iraunkorrak. GJH 12. Ekoizpen eta kontsumo arduratsua. GJH 13. Klima babesteko ekintza. GJH 15. Lehorreko bizitza. GJH 17. Itunak, helburua lortzeko. LSH 4. Bizimodu jasangarria. LSH 7. Erkidego konpromisoa eta ekintza parte-hartzailea.

Egun, garrantzitsutzat jotzen da etorkizuneko irakaslea jabetzea hezkuntza ondasun publiko, munduaren ondare, oinarritzko giza eskubide eta beste eskubide batzuk betetzeko oinarri dela, eta mundu iraunkorrako, zuzenago eta baketsuagoa sortzen lagun dezakeela. Alde horretatik, Lehen Hezkuntzako etorkizuneko irakasle gisa, gure ikasleak beharrezkoa du genero-rolen pertzepzio tradizionala ezagutu eta ikuspegi kritiko batetik zalantzan jartzea, uraren kutsaduraren eta ur faltaren kausak, eraginak eta ondorioak zeintzuk diren jakitea edota eredu ekonomikoez eta ekonomiaren eta gizartearen etorkizuneko ikuspegiak kritikoki eztabaidatzea.

Etorkizuneko Lehen Hezkuntzako irakasle gisa, gai izan behar da baztertutako pertsonetako elkartasuna erakusteko, desberdintasuna gizarte-arazoen sortzaile eta gizabanakoaren nahigabearen eragile dela jakiteko eta bere bizimoduak ingurumenean eta gizartean dituen inpaktuen aurrean arduraz jokatzeko. Azken finean, gai izan behar da bere ikasleak kontsumoan eta produkzioan iraunkortasunez jokatzera bultzatzeko, klima babestera eramateko edota giza eskubideak oinarri hartuta, balio eta erantzukizunak haiekin partekatzeko. Irakasgai honen bidez, ikasleak ikasiko du munduaren ikuspegi iraunkor bat lantzen eta horrek lagunduko dio bizimodu jasangarria eta kausa sozialak eta ekologikoak defendatzen, gizarte- eta ingurumen-politikaren ikuspegiak identifikatuz eta erronkei erantzun soziala emanez.

Edukiak

0. Ikasgaiaren aurkezpena: ikasgaiari sarrera eta bere testuinguruan jartzea.

1. GAIA : Gizarte Zientziak Lehen Hezkuntzako curriculumean.

- Gizarte Zientzien didaktikaren inguruko hausnarketak.
- Funtsezko kompetentziak eta Gizarte Zientziak.
- Gizarte Zientziak Lehen Hezkuntzako curriculumean. Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen ezagutza arloaren hezkuntza-balioa.

2. GAIA: Gizarte Zientzien curriculumea.

- Gizarte Zientzien curriculumaren funtsezko kompetentziak eta kompetentzia espezifikoak.
- Gizarte Zientzien curriculumaren oinarritzako jakintzak.
- Programazioa Gizarte Zientzietan.

3. GAIA: Gizarte Zientzien edukien ikaskuntzarako estrategia metodologikoak.

- o Gizarte Zientzien ikaskuntzarako estrategiak ikasgela barruan.
- Espazioaren eta denboraren ikaskuntza Gizarte Zientzietan.
- Behaketaren garrantzia Gizarte Zientzien ikaskuntzarako.
- Kontzeptu-mapa.
- Komunikabideen erabilera Gizarte Zientzietan.
- Jolasa/jokoa.
- Ezagutza sozialaren berregiterako estrategiak.

- o Gizarte Zientzien ikaskuntzarako estrategiak ikasgelatik kanpo.
- Landa-lana

Ikas-irakaskuntza estrategiak

Irakasgaiaren garatutako irakatsi-ikasi estrategiak MAUD (Modelo Aprendizaje Universidad Deusto) ereduari erantzuten dio, lau fase nagusitan garatzen delarik:

Irakasgaia edo esperientzia-testuingurua beren testuinguruan zentzu zabalean jartzea ahalbidetzen duten jarduerak: Atal honetan, jarduerak, ikasleak errealitatean hurbiltzea izango dute helburu, bere esperientzia pertsonaletatik abiatuz eta aurretiazko ikusmoldeen hausnarketa eginez, beste ikasleekin kontrastatu eta eztabaidatzeko (eztabaidak, aurretiazko ideien azalera, eta abar). (ECTS kredituen % 5 gutxi gorabehera).

Ikerketa eta hausnarketa pizten dituzten jarduerak: Atal hau, Gizarte Zientziekin zerikusia duten gaur egungo gertaeren azterketa bultzatzeko diseinatutako jardueren bitartez egingo da, baita informazioa landa lanaren bidez taldean biltzeko ere. Gela barruan aurkezpena eta eztabaida egingo da irizpide zientifikoaren ekarpenak luzatuz. Sakontze teorikorako zalantzen probetxua. (ECTS kredituen % 15 gutxi gorabehera).

Irakasgaiaren edukien ikaskuntza teorikoa edo kontzeptualizazioa. Atal honetan kontzeptualizaziora zuzendutako jarduerak biltzen dira, ikasleak kalitatez kontrastatutako erreferente teoriko eta praktikoen

kontaktuan jartzeko asmoz. Horretarako, irakaslearen aurkezpen teorikoak, aukeratutako dokumentazioaren irakurketak, bilaketa bibliografikoa, eta abar erabiliko dira. (ECTS kredituen % 30 gutxi gorabehera).

Esperimentazio aktiboa: Atal honetan biltzen dira elementu eta proposamen kurrikularren azterketa, diseinua eta lanketarako jarduerak, ikaslearen esperimentazio aktiboa ahalbidetzea helburu dutelarik. (ECTS kredituen % 35 gutxi gorabehera).

Ebaluazioa: Atal honetan, ikaslearen ebaluazio batutzailea ahalbidetzen duten jarduerak biltzen dira. (ECTS kredituen % 15 gutxi gorabehera).

Ebaluazioa

Ikasgaiaren ebaluaketa egiteko, aurreikusitako berariazko gaitasunak eta gaitasun orokorrak noraino lortu diren baloratzeko baliagarriak eta egokiak diren datuak eta ebidentziak hartuko dira abiapuntutzat. Informazio iturri gisa, irakasgaiaren garatutako jarduerak garrantzitsuenak erabiliko dira, kasu bakoitzean kontutan hartuko diren adierazleak eta ebaluaketa irizpideak azalduz.

Ebaluazioa jarraia izango da, azken lorpenetan eta emaitzetan oinarritutako ebaluazioa alde batetara utziz. Beraz, prozesuaren garapena baloratzeko ikaskuntza jarduerak erabiliko dira, batez ere lorpen eta emaitza partzialetan arreta jarritz, eta egokitzat jotzen diren errefortzu edo konpentsazio neurriak kontutan hartuz. Hauei, azken emaitzen ebaluazio bat gehituko zaie, dagozkion gaitasunak baloratzeko jarduerak eta frogak egokiak erabiliz.

Kalifikaziorako irizpideak:

- Gaitasun Orokorraren balorazioa kalifikazioaren % 10 izango da.
- Berariazko Gaitasunen balorazioa kalifikazioaren % 90 izango da.

Jarduerak: %50 (BERARIAZKO GAITASUNEN %40 ETA GAITASUN OROKORRAREN %10).

Azterketa: %50 (SOILIK BERARIAZKO GAITASUNAK).

Irakasgaia gainditzeko **ezinbestekoa da atal biak gainditzea.**

Ezohiko deialdia: Kalifikazio irizpideak berdinak dira ezohiko deialdirako, baina gainditzeke dauden atalen gainditzea beharrezkoa litzateke.

Adimen artifizialaren erabilera:

Ez dago baimenduta adimen artifizialeko tresnak (AA) edo horien bidez sortutako edukiak erabiltzea.

Ezin da lan akademikorik kopiatu, plagiatu edo sortu Adimen Artifizialeko tresna baten bidez. Horrelako iruzurrezko praktikak egitea falta astuntzat hartuko da, Ikasleen Araudiaren 75. artikulua araberaren arabera, (Deustuko Unibertsitateko Aldizkari Ofiziala, 81. zk., 2023ko ekaina).

Dokumentazioa

Programaren baldintzen eta jardueren jarraipena egokia izan dadin, ikasleagoak honako dokumentazio iturri hauek erabiliko ditu:

- ❖ ALUD Plataforman erabilgarri dagoen irakasgaiaren materiala (Ikaskuntza Gida eta gaiak). Material honek ikasleagoa ikaskuntza prozesuan zehar gidatuko du, landu beharreko eduki teorikoari eta egin beharreko jardueri dagokionez.
- ❖ Bibliografia, ezagutzak eta gaitasunen garapena lortzeko, eta ikusitako gaitan eta edukietan sakontzeko.

OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA:

- Aisenberg, B., Alderoqui, S. (konp.). (1994). *Didáctica de las Ciencias Sociales. Aportes y reflexiones*. Paidós.
- Aisenberg, B., Alderoqui, S.(konp.). (1998). *Didáctica de las Ciencias Sociales II. Teoría con prácticas*. Paidós.
- Alonso, S. (2010). *Didáctica de las Ciencias Sociales para la Educación Primaria*. Pirámide.
- Arias, L. (et. al) (2012). *Espacio y tiempo en la didáctica de las ciencias sociales (Educación Primaria)*. Diego Marín.
- Arias Ferrer, L., Egea Vivancos, A. (2022). *Didáctica de geografía e historia en educación primaria*. Editorial Síntesis.
- Asociación Universitaria del Profesorado de Didáctica de las Ciencias Sociales (1997). *La formación del profesorado y la Didáctica de las Ciencias Sociales*. Díada.
- Ávila, R.M. (2008). *Didáctica de las Ciencias Sociales, currículo escolar y formación del profesorado*. Universidad de Jaén.
- Benejam, P., Pagés, J. (coord.) (1997). *Enseñar y aprender Ciencias Sociales, Geografía e Historia en la Educación Secundaria*. Horsori.
- Benejam, P. (et al) (2002). *Las Ciencias Sociales: concepciones y procedimientos*. Graó.
- Bonilla, A. L., Guasch, Y. (coords.) (2018). *Entorno, sociedad y cultura en Educación Infantil. Fundamentos, propuestas y aplicaciones*. Pirámide.
- Carretero, M. (1989). *La enseñanza de las Ciencias Sociales*. Antonio Machado.
- Carretero, M. (1996). *Construir y enseñar las Ciencias Sociales y la Historia*. Antonio Machado.
- Cooper, H. (2002). *Didáctica de la historia en la educación infantil y primaria*. Morata.
- Cuenca, J. M. (2006). "La enseñanza de contenidos sociohistóricos y patrimoniales a través de los juegos informáticos de simulación. Treballs d'Arqueologia 12. Ponencia presentada en Barcelona, 26-28 octubre
- Domínguez, M^a C. (coord.) (2004). *Didáctica de las Ciencias Sociales*. Pearson.
- Egan, K. (1991). *La comprensión de la realidad en la educación infantil y primaria*. Morata.
- Fernández, A. (2001). *Las mujeres en la enseñanza de las Ciencias Sociales*. Síntesis.
- Fernández, A. R., Fernández, M. (coord.) (2017). *La didáctica de las ciencias sociales ante la necesidad de nuevas narraciones en el siglo XXI*. Editorial Comares, S.L.
- Friera, F. (1995). *Didáctica de las Ciencias Sociales. Geografía e Historia*. Ediciones de la Torre.
- García, A. L. (1993). *Didáctica de las Ciencias Sociales en la Educación primaria*. Algaida.
- Gómez, C. J., Ortuño, J., Miralles, P. (2018). *Enseñar ciencias sociales con métodos activos de aprendizaje. Reflexiones y propuestas a través de la indagación*. Octaedro.
- Gómez, C. J., Rodríguez, R. A. (2014). *Aprender a enseñar ciencias sociales con métodos de indagación. Los estudios de caso en la formación del profesorado. Revista de docencia universitaria 12(2), 307-325*.
- Grupo Ínsula Barataria. (1994). *Enseñar y aprender Ciencias Sociales. Algunas propuestas de modelos didácticos*. Mare Nostrum.
- Grupo Ires. (1996). *La experimentación curricular en Ciencias Sociales: Planteamientos y perspectivas*. Alfar.
- Hernández, F. X. (2002). *Didáctica de las ciencias sociales, geografía e historia*. Graó.
- Hernández Carretero, A. M. (Coord.) (2019). *Estrategias y recursos didácticos para la enseñanza de las Ciencias*

Sociales. Ediciones Pirámide.

Kovacíc, D. M. (2012). Chess in schools. A good move. *Psiencia. Latin American Journal of Psychological Science* 4(1), 29-41. doi: 10.5872/psiencia/4.1.23

Liceras, A. (2000). *Tratamientos de las dificultades de aprendizaje en Ciencias Sociales*. Grupo Editorial Universitario.

Liceras, A., Romero, G. (coords.) (2016). *Didáctica de las Ciencias Sociales. Fundamentos, contextos y propuestas*. Ediciones Pirámide.

Martínez-Soto, J.M., Egea, A., Arias, L. (2018). *Evaluación de un videojuego educativo de contenido histórico. La opinión de los estudiantes. Revista Latinoamericana de Tecnología Educativa*, 17(1).

Mendióroz, A. M. (2013). *Didáctica de las Ciencias Sociales. Formación del área e integración del conocimiento*. Universidad Pública de Navarra.

Miralles, P., Gómez, C. J., Arias, L. (2013). La enseñanza de las ciencias sociales y el tratamiento de la información. Una experiencia con el uso de webquests en la formación del profesorado de educación primaria [artículo en línea]. *Revista de Universidad y Sociedad del Conocimiento (RUSC)*. 10 (2), 98-111.

Montenegro, J. (2015). *Didáctica de las Ciencias Sociales: los valores humanos en la educación*. Prensas de la Universidad de Zaragoza.

Morote, A.F., Campo, B. & Colomer, J.C. (2021). Percepción del cambio climático en alumnado de 4º del Grado en Educación Primaria (Universidad de Valencia, España) a partir de la información de los medios de comunicación. *Revista Electrónica Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 24(1), 131-144

Orozco Alvarado, J. C. (2016). Estrategias didácticas y aprendizaje de las Ciencias Sociales. *Revista Científica Estelí*, 17. DOI: <https://doi.org/10.5377/farem.v0i17.2615>

Rajadell, N., y Medina, A. (2015). Teorías de la enseñanza y el proceso formativo. En A. Medina y M.C. Domínguez (Eds.), *Didáctica. Formación básica para profesionales de la educación* (pp. 75-117). Universitas.

Sandoya Hernández, M.A. (2016). *Enseñar Ciencias Sociales. 35 actividades para desarrollar capacidades*. Editorial UOC.

Sandoya Hernández, M. A. (2021). *Didáctica de la Geografía en Primaria*. Editorial CCS.

Santisteban, A., Pagés, J. (2011). *Didáctica del Conocimiento del Medio Social y Cultural en la Educación Primaria*. Síntesis.

Tann, C. Sarah (et al). (1990). *Diseño y desarrollo de unidades didácticas en la escuela primaria*. MEC eta Ed. Morata.

Tonda, E.M. (2001). *La didáctica de las ciencias sociales en la formación del profesorado de educación infantil*. Publicaciones Universidad Alicante.

Torruella, M. F., Hernández, F. X. (2011). *Enseñar y aprender historia*. Graó.

Trepát, C.A., Comes, P. (2008). *El tiempo y el espacio en la didáctica de las ciencias sociales*. Graó.